

PRENTSA-OHARRA

Oltza Zendea, Etxauri, Ziriza, Etxarri/Etxarri, Bidaurreta, Belascoain/Beraskoain, Zabalza/Zabaltza eta Olla/Ollaran Udaletako Berdintasun Zerbitzuko Zainketen Ituneko taldeak bat egin du Lurralde Zainketen Diagnostikoa egiteko.

Martxoaren 5ean egin zen Barne Koordinaziorako Taldearen lehen bilera, lurralde horretako herritarrentzako zaintza-ekonomiari eta zahartze aktiboari lotutako zerbitzuak hobetzea helburu duen diagnostikoa egiteko.

Udalek eta inguruko beste entitate eta kolektibo batzuek Zainketen aldeko Ituna sinatu zuten 2024ko ekainaren 5ean, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren (INAI/NABI) bidez bultzatutako Zainketen aldeko Tokiko Itunarekin bat eginez. Ituna sinatuta, zaintza lanak pertsonen, komunitatearen, administrazio publikoen, sektore pribatuaren eta gizarte zibilarren artean berdintasunez banatzen lagundu nahi da, eta zainketen inguruko politika publikoak pertsonen eskubideetan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean eta belaunaldien arteko eta kulturen arteko elkertasunean oinarritutako eredu baterantz bideratu nahi dira. Gainera, inguruko eragile sozialak, elkarteak eta kolektiboak inplikatzeko saiatzen da zaintzak bizitzaren iraunkortasunerako, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreala eta eraginkorra lortzeko dimentsio nagusi gisa ulertzeko konpromisoan.

3.775 biztanleko lurralde bati zuzendutako partaidetzazko zainketen diagnostikoak "Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren 2025ean Nafarroako toki entitateentzat emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko eta proiektuak garatzeko dirulaguntzaren baitan, kokatzen da". Diagnostiko honen bidez, herritarrei jakinarazi nahi zaie garrantzitsua dela lurraldean zainketei dagokienez dauden baliabideen egoeraren berri izatea, baita epe labur, ertain eta luzeko premien berri ere. Horretarako, aire zabaleko espazioei eta eraikinei, garraioari, errespetuari eta gizarteratzeari, gizarte-partaidetzari, komunikazioari eta informazioari, enpleguari eta herritarren parte-hartzeari, gizarte-zerbitzuei eta abarri lotutako lurraldeko zaintza-zerbitzuen eskaintza eta eskaria aztertzen hasi gara.

Lurraldean oso garrantzitsutzat jotzen da dauden baliabideak identifikatzea, publikoak zein komunitarioak, bai eta zainketen baldintzak hobetzeko proposamenak jasotzea eta alternatibak proposatzea ere.

Informazioa aztertzeke eta elkarriketak egiteko fase diagnostikoa egin ondoren, informazioa zainketa-taldearekin kontrastatuko da. Ondoren, beste talde bat egingo da, zainketen ekintza-planeko jarduerak identifikatzeko eta modu parte-hartzailean proposamenak egiteko.

Azken urrats gisa, ekintza-plana biztanleekin partekatuko da, parte hartzeko saio batean, lurralde osoak aukera izan dezan bere iradokizunak, beharrak eta proposamenak egiteko

Informazio gehiago:

Amaia Abucide Aylagas

Servicio de Igualdad de los Ayuntamientos de Cendea de Olza, Etxauri, Ciriza, Echarri, Bidaurreta, Belascoain, Zabalza y Valle de Olla.

Oltza Zendea, Beraskoain, Etxauri, Ziritza, Etxarri, Bidaurreta, Beraskoain, Zabaltza eta Ollarango Udalen Berdintasun Zerbitzua.

948 322068 - 621 685061